

## KANALAK

Youtuber famatu bati diru kantitate bat ordainduko diogu, honi esker gure produktua famatuagoa egingo da eta gizartearen artean azkar zabalduko da. Gaur egun youtuberrak influentzia handia dute gazteen artean, beraz, kanal hau erabiltzen badugu, gure produktuaren salmentak gora egingo dute eta enpresaren izena ezaguna bilakatuko da. Gainera gaur egun internetek botere handia du informazioa zabaltzeko orduan.



Gure salmenta-kanal garrantzitsuena internet izango da, gaur egun erabiltzen den metodo eroso eta erabilgarriena delako. Gure produktua bakarra da, ondorioz gure webgunean kuleroak saltzeaz gain, enpresaren helburu nagusiak eta zergatiak argi azalduko dira bezeroak garbi izan ditzan.

Posta bidez bidaliko ditugu eskariak bezeroarengana, garraio enpresa baten zerbitzuak kontratatuz. Arazoren bat izanez gero, hainbat bide izango dute gurekin kontaktuan jartzeko.

Gure produktua bezero eta gizartearen artean zabaltzeko, eta gainera bere efikazia erakusteko, Bilbon zabalduko dugun denda fisikoan, lehenengo egunetan hainbat kulero zozketatu eta oparituko ditugu beraien artean, gure produktuarekiko dugun konfiantza erakusteko.